

Haurrek irakatsi ahal baligute...



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

1. Gure bizitzak plazerak gobernatuago izan beharko lukeela esango ligukete. Eta baietz, ongi dagoela errealitateaz jabetzea, eta egin beharrekoa zer den ohartzea, baina zaporea bizitzari dibertimenduak, irriak, denborapasak eta gozamenak ematen diola; eta kendu, betebeharrak. Eta ahanzturik gaudela dirudiela, hain gris eta zurrun bilakatuta.

2. Jolas dezagula gehiago. Bizitzeko manera bat dela, politika bat ia-ia, jolasez bizitzea, ikastea eta haztearena. Hautu bat dela, denak dauka-eta bere alde ludikoa, sormenaren bitartez eraldatu daitekeena, eta errealitatearen alde hori bilatuz edo eraikiz baino ez dugula lortuko geure neurrirako bizitza.

3. Egoteko gehiago gorputzean, eta izateko maizago gorputz huts. Komeniko litzaigukeela burutxo horretatik maizago irtetea, eta sentitzera jarrita egotea, arrazioaren eta hitzaren erabateko agintepetik urrun. Badagoela beste manera batez eta beste lengoia batzuetan komunikatzea ere, ez hain zehatz behar bada, baina emozioaren intentsitatearekin.

4. Orainean bizi gaitzela. Ez daukagulako oraingo unea besterik, eta une horretan, uneak eskaintzen digunarekin, egin dezakeguna. Eta baietz, badakitela, etorriko denaz ere arduratu behar dela, eta gerta daitekeenaz, baina hainbeste? bizitza orain gertatzen dela, eta hemen, eta gogoratzeko, unean unekoa, eta gero gerokoak.

5. Oso kanporantz bizi garela, eta etena dugula geure baitarako kontaktua,



PAULA ESTEVEZ

zer nahi, desio eta behar dugun askotan ez jakitera iristeraino. Garrantzitsua dela besteak aintzat hartzea, elkarri egokitzea, eta bestearen gustua egiten jakitea, baina norbera izatea, nor bere burua erakustea, eta hori lehenestea ez dela berekoikeria, autoestimua baizik, eta hortik behar duela bakoitzak munduan egoteko kokaleku propioa eraiki, beretik.

6. Bizitzaren erritmo naturala zein den ohartu behar garela. Gauza garrantzitsuek erritmo geldoa dutela, denbora behar izaten dutelako gertatzeko, eta loratzeko. Gu ez garela ohartzen, bizitzatik asko urrundu garelako, bere moduetatik, eta bere zentzutik, baina hala dela, eta erritmo lasaiean baino ezin dela ongi bizi, ongi ikasi, ongi hazi, ongi egon.

7. Harritu bizitzaz. Berreskuratu gertakari berriekiko poza, enigmeko jakinmina, bizitzarenganako entusiasmoa, gauzak lehen aldiz ikusten dituenaren ilusioa, eta harridura. Dena dakigula uste dugula, eta oso aspergarria dela modu horretan bizitza, ustekaberik batere gabe, dena aurreikusita, dena iragarrita, dena jakinda. Nola bizi daiteke bat, dena ikusita dagoela uste izanik?

8. Izan zaitezte autentikoagoak, eta erakuts ezazue lotsarik gabe zuek bakarrik zareten hori, berezi egiten zaituztena, barruan daramazuena, emateko duzuen. Eta izan gardenak, eta hainbeste galbahetatik pasa beharrik gabe adierazi nahi duzuen hori, argi eta garbi, zeharbiderik gabe.

9. Maitatu beldurrik gabe, erreparorik gabe, izate osoarekin, gogo eta bihotz. Eta ahal duzuen denbora gehiena pasatu maite dituzuen inguratuta, bizitza partekatuz, gauzarik ederrena da-eta laguntasuna.

10. Hartu atsedeen! Oso nekatuta egoten zarete, eta indarberritu beharra dago, bizitzari berriz sutsuki ekiteko.

11. Baina tira, ez duzue egingo, badakigu. Handiuste zarete, eta ez diguzue jaramonik egiten, ezta kontuan hartzen, ohituta gaude. Egin nahi duzuen, baina otoi, utz gaitzazue gu pixka bat bakean, utziguzue gure printzipio hauen arabera bizitzen eta ikasten, eta ez zaitezte hainbete tematu gu zuen bizitza horretarako prestatzen, hori da-eta nahi ez duguna, zuen modukoak bilakatu, edota zuen bizimodu ero horri lotu. Ez zarete eredugarriak. ●